

JOSU MUJIKAI Aiestaran – Erailketaren Biktima

Josu Mujika Aiestaranen senideek Bergarako Auzitegian kereila kriminala aurkeztu dute, GEBehatokiarekin elkarlanean. Kereila tramitera onartu da.

Mujika poliziek 1975ean Madrilen hil zuten. Ondorioz, gizateriaren aurkako delituetan oinarrituta, kereila poliziaen aurka tarteratu da.

Kereilapeko bat Mikel Lejaraza, *El Lobo*, polizia infiltratua izan da. Berak idatzitako liburuetako batean, Mujikaren heriotzean parte hartu zuela aitortu baitzuen, eta gainera, Radio Euskadin berriro egingo lukeela adierazi zuen. Beste bat Jorge Cabezas da. Honek, beste liburu batean polizia operazio horretan parte hartu zuela aitortu zuen. Horietaz gain, orduko gobernazio ministro Jose Garcia Hernandez sartu da kereilan. Baita terrorismoaren kontrako unitateko beste zortzi polizia eta beste hamasei polizia armatu.